



BEIZAMAKO UDALA
(GIPUZKOA)

2009-02-25eko OHIKO UDALBATZA

Beizaman, bi mila eta bederatzigarren urteko otsailaren hogeita bostean, arratsaldeko 19:00etan, udaletxeko udalbatza-aretoan, ezohiko batzarra egin du Udalbatzak, alkatea – Ramon Gerrikagoitia Bengoetxea jauna– buru duela.

Zinegotzi hauek izan dira bileran: Begoña Garmendia Vazquez andrea, eta Igone Arruti Olazabal andrea.

Ez da etorri eta ezin etorria adierazi du: Luis Javier Oregi Iñurrieta jauna eta Itziar Arkonada Lizarraga andrea.

Ez da etorri eta ez du adierazi ezin etorria: Inork ere ez.

Udaleko idazkariak, Bittor Agirreurreta Murgia jaunak, egin ditu idazkari-lanak.

Alkateak irekitzat jo du saio publikoa; segituan, eta haren baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egitea badagoela, Toki Erregimeneko Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta 2568/1986 Errege Dekretua, azaroaren 28koa, Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Eraentza Juridikoaren Erregelamendua onartzen dituenak, agindutako gutxieneko partaide-kopurua bertaratua baita.

LEHENENGO GAIA
AURREKO BILERAKO AKTA ONARTZEA.

2009ko urtarrilaren hemeretziko ezohizko saioaren akten zirriborroa ikusita, aho batez erabaki du Udalbatzak hauek onartzea.

BIGARRENGO GAIA
ALKATEAREN DEKRETUEN BERRI EMATEA.

Alkateak honako dekretuen berri ematen dio udalbatzari:

- 2009-01-29ko 1/2009 Dekretua: 2007ko aurrekontuari dagokion likidazio dekretua.
- 2009-01-21eko 2/2009 Dekretua: 53.011.435T N.A.ri urtarrilaren 24an aterpetxea erabiltzeko baimena ematea.
- 2009-02-12ko 3/2009 Dekretua: 34.100.299Q N.A.ri otsailaren 13, 14 eta 15ean aterpetxea erabiltzeko baimena ematea.
- 2009-02-13ko 4/2009 Dekretua: Eginkizun anitzeko langilearen lanpostua betetzeko oposaketa-lehiaketa deitzea.

Hori dela eta, udalbatzak aho batez adierazi du jakinaren gainean dagoela.

HIRUGARRENGO GAIA
IBERDROLAK ZERBITZUAREN HAUSTUREN AURREAN IZAN OHI DUEN
JARRERAREN AURREKO ERABAKIA HARTZEA.



BEIZAMAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Beizamako udalerriak elektraindar hornikuntza sarearen akats ugari jasaten ditu maiz, arazo honengatiko erantzun arrazoituak jasotzen ez direlarik.

Azkenetariko gertakaria 2008ko urriaren 13an izandakoa dugu: Ignacio Arruti Unanuek, Iberdrolarekin 5909971 kontratu zenbakia duenak, jasandakoa da. Egun horretan, gertatutako zerbitzu eten baten berri emanez deitu zuen eta azalpenak jaso orde, bere etxeko sisteman sortutako arazoren bat zelako erantzuna jaso zuen. Guztia argitu nahian, elektrizista profesional baten zerbitzuak kontratatu ziren eta honek egiaztatu ahal izan zuenez, etxekoa baino Iberdrolaren akats baten ondorioz gertatutako etena izan zen.

Etenaren ondorioz, batetik, hainbat kalte sortu zaie hainbat herritarrei zuzenean; eta bestetik, eten horrek ur deposituetan izandako eraginak, herriaren zati bat ur zerbitzu gabe utzi zuen bi egun osoz.

Aipatutako etenaz gain, beste zerbitzu akatsengatik ere Iberdrolara deitu izan da maiz, bai Udal honetatik, bai eta hainbat herritarrek norbere izenean eta ez da inoiz behar bezalako erantzunik jaso, hots, ez da jaramonik egiten.

Aurreko guztia kontuan hartuz, Udalbatzak bertan daudenek aho batez harturiko erabakiarekin, ondokoa erabakitzen dute:

Lehena.- Arazo honen aurrean Iberdrolaren jarrera salatzea eta Beizamako Udalaren kexa enpresa berari jakinaraztea.

Bigarrena.- Beizamako Udalaren kexa eta salaketaren berri Eusko Jaurlaritzako Industria Sailari eta Energia Zuzendaritzari jakinaraztea."

Erabaki hau izapidezko egintza soila besterik ez da eta beraren aurka ezin da inongo errekurtsorik jarri.

LAUGARRENGO GAIA

ONARTZEA, BADAGOKIO, LANDAGIPUZKOA32 EGITASMOAREN BARRUAN ETORLURRERI EGIN BEHARREKO LAGAPENA EGITEA.

2008ko azaroaren 25eko 74/08 Foru Dekretuak, Landagipuzkoa 32 programaren barruan dauden udalerrietan Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako azpiegitura balioaniztunetarako inbertsioak aukeratu eta gauzatzeko prozedura arautzen zuen. Beizamako Udalak, honen barruan, plaza eta udaletxeko eraikinean ekipamendu soziokulturaleko eranskinaren proiektuaren inbertsioa finantzatzeko diru laguntza eskaera aurkeztu zuen.

Aurrekoarekin lotuta, proiektu guztiak bere bidea jarrai dezan eta ETORLUR-EK (ETORLUR GIPUZKOAKO LURRA S.A.U.) obrak sustatze aldera ondasun higiezin



BEIZAMAKO UDALA
(GIPUZKOA)

edukitza eta behin-behineko okupazioa egin behar du.

Guztia kontuan hartuz eta apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 22.2 artikuluan ematen dituen eskuduntzak kontuan hartuz, Udalbatzak bertan daudenek aho batez harturiko erabakiarekin, ondokoa erabakitzen dute:

Lehena.- Aipatutako proiektua aurrera eramateko, Etorlur-ek beharrezkoa duen lagapena egitea.

Bigarrena.- Etorlur-i bermatzea ondasuna kargarik gabe eta baldintza egokietan edukitzeko moduan entregatzen zaiola, aurreikusitako jarduera aurrera eramateko.

Hirugarrena.- Horretarako, informazio dokumental hau aurkeztuko dio, egiazko eta errealitatearekin bat datorren informazioa alegia:

1. dauden azpiegiturak
2. hirigintzako araudira egokitzea
3. partzelen dokumentazioa
4. erregistroa eta zortasun legalak
5. legezketasuna / antzinatasuna
6. hirugarrenak
7. dauden kontratuzko harremanak

Erabaki hau izapidezko egintza soila besterik ez da eta beraren aurka ezin da inongo errekurtsorik jarri.

BOSGARRENGO GAIA

E-ADMINISTRAZIOA MARTXAN JARTZEKO PROIEKTUAN, UDALAK IZFERI BAIMENA EMATEA ERREGISTROA INTERNETEN AZALTZEKO ETA ALTA EMATEA ZERBITZU TELEMATIKOETAN.

Ekainaren 22ko 11/2007 Legeak, Zerbitzu publikoetara sarbide elektronikoa arautzen duenak, administrazioaren ohizko jardueran eragina duten hainbat aldaketa garrantzitsu ezartzen ditu. Adibide gisa, ondorengo eskubideak ezartzen ditu herritarrentzat:

- Administrazioarekin harremanak elektronikoki izateko eskubidea
- Beraiei dagozkien prozeduren egoera elektronikoki ezagutzeko eskubidea
- Interesatuta dauden prozeduretan, dokumentuen kopia elektronikoa eskuratzeko eskubidea
- etab...

Aldiz, honako betebeharrak ezartzen dizkie administrazioei, beste batzuen artean:

- Sarbide elektronikoak bermatu behar dira



BEIZAMAKO UDALA
(GIPUZKOA)

- Interesatuei buruzko datuak beste administrazio batzuen esku utzi ahalko dira, beti ere Datuak Babesteko Legearen arabera
- Administrazioak bere "Egoitza elektronikoa" eguneratua eduki behar du (beraz, web orriak izaera legala hartzen du)
- Elektronikoki sinatutako dokumentuak onartu behar dira
- Erregistro elektronikoak derrigorrez sortu behar dira

Guztia martxan jartzeko epea ere jartzen du aipatutako legeak: 2010eko urtarrilaren lehena.

Aurrekoa ikusirik, batetik, eta herritarren egungo eta etorkizuneko zerbitzua hobetzeko, bestetik, Eudel eta Izfe e-administrazioa bideratutako sistemak martxan jartzeko proiektua hitzartu dute, Udalei helburu horiek lortzen laguntzeko. Honen bidez, Udalei Izfek garatutako tresnetaz baliatzeko aukera ematen zaie: zerbitzu telematikoak, sarreraren/irteeren erregistroa, web orriak eta espediente kudeaketa. Tresna hauetaz baliatzeak ez du kosturik izango 5.000 biztanletik beherako Udalentzat proiektuak irauten duen bitartean.

Guztia kontuan hartuz, Udalbatzak bertan daudenek aho batez harturiko erabakiarekin, ondokoa erabakitzen dute:

Lehena.- Beizamako Udalak aipatutako proiektuan partehartzeko interesa duela adieraztea.

Bigarrena.- Proiektua honetarako ondoko bi pertsona hauek izendatzea:
Arduradun politikoa: Itziar Arconada Lizarraga, Udaleko zinegotzia.
Arduradun teknikoa: Bittor Agirreurreta Murgia, Udaleko idazkaria.

Hirugarrena.- Beizamako Udaleko erregistroa internetera zabaltzeko baimena ematea.

Laugarrena.- Zerbitzu Telematikoetan alta eskatzea.

Bosgarrena.- Izferi guztiaren berri ematea.

Erabaki hau izapidezko egintza soila besterik ez da eta beraren aurka ezin da inongo errekurtsorik jarri.



BEIZAMAKO UDALA
(GIPUZKOA)

SEIGARRENGO GAIA GALDERA ETA ESKAERAK.

Gaiaren premiatasuna ikusirik, Udalbatzak bertan daudenek aho batez harturiko erabakiarekin, ondoko gaia bertan eztabaidatzea erabakitzen dute:

SOASU MENDIAREN EGUR USTIAKETA KONTRATUAREN DEUSEZTATZE PROZEDURARI HASIERA EMATEA.

Udal honek 2007ko azaroaren 9an eginiko udalbatzan, Soasu Mendiaren egur ustiaketa Larrano Basolana SAri esleitu zion, ondoren, 2007ko abenduaren 12an aipatutako esleipenari dagokion kontratua sinatu zelarik.

Esleipena arautzen duten baldintza juridiko, ekonomiko eta administratibo berezien orriek eta kontratuaren klausulek agindutakoaren arabera, 2008ko ekainaren 12an egina beharko luke bigarrenko ordainketa, 43.739,48.-€ko ordainketa hain zuzen ere. Azkeneko ordainketa, 2008ko abenduaren 12an egin beharrekoa zen, beste 43.739,48.-€, eta une horretan amaitu behar zen kontratua.

Udal honek 2008ko abenduaren 22an egindako ezohiko osoko bilkuran, besteen artean, honakoa erabaki zuen:

“Lehenik.- Soasu mendian aurrera eramaten ari diren lan guztien etetea agintzea.

Bigarrenik.- Egindako eskaera onartua izan dadin, esleipendunak 89.403,49.-euroko abala eratu beharko du (ordaintzea falta den kopuru osoa eta honi dagokion legezko interesa) 15 egun naturaleko epean, erabaki honen jakinerazpenaren biharamunetik kontatzen hasita.

Hirugarrenik.- Esleipendunak aipatutako abala eratu ondoren, Udal honek Gipuzkoako Foru Aldundiari egoera jakinarazi eta ustiapenaren luzapena eskatzea.

Laugarrenik.- Esleipendunak aurreko abala eratzen ez baldin bada, zordutako kopuruaren berehalako ordainketa errekeritu eta kontratua deusezte. Kasu honetan, sektore publikoarekin kontratatzeko ezgaitasuna eskatzeko jardunbideari ekingo zaiolarik.

Bosgarrenik.- Basozaintzari erabaki honen berri ematea dagokion efektuetarako.

Seigarrenik.- Esleipendunaren ekintzak desobedientzia-delitua direlako arrastorik baldin bada, dagokion testigantza ministerio fiskalera eramatea.”

Guztia, 2008ko abenduaren 30ean esleipendunari jakinarazi zitzaion, Udal honek jaso zuen berri bakarra, bertatik luzatutako e-mail bat besterik izan ez delarik. Bertan,



BEIZAMAKO UDALA
(GIPUZKOA)

urtarrilaren erdi aldean ordainketa bat egingo zela esanez eta epea luzatzeko eskatuz. Mezu horretan ez zen ezer esaten Udalak jarritako baldintzei buruz.

Ikusirik idazkariaren txostena, aurreko guztia kontuan hartuz eta indarrean dagoen araudia, besteak beste, Ekainaren 16ko 2/2000 Errege Dekretu Legegileak, Administrazio Publikoen Kontratuaren Legearen Testu Bateratua onartzen duenak, Udalbatzak, bertan daudenek aho batez harturiko erabakiarekin, ondokoa ebazten du

Lehena.- Soasu mendiaren egur ustiaketa kontratuaren deuseztatze prozedurari hasiera ematea.

Bigarrena.- Esleipendunari 10 egunetako epea ematea, honakoa jakinarazi eta biharamunetik kontatzen hasita, egoki deritzon alegazioak aurkez ditzan.

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtoa ipini daiteke Donostiako Administrazioarekiko auzietako epaitegietan.

Gaiaren premiatasuna ikusirik, Udalbatzak bertan daudenek aho batez harturiko erabakiarekin, ondoko gaia bertan eztabaidatzea erabakitzen dute:

**UDAL HONETAKO 2008 URTERAKO LANPOSTU ZERRENDAN ALDAKETA
EGITEA ONARTZEA**

2008ko apirilaren 30ean egindako bilkuran, Udal Osoko Bilkurak, besteen artean, 2008 urteko Plantila Organikoa eta Lanpostuen Zerrenda onartu zituen. Ondorioz, 2008ko irailaren 23ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 182 zenbakidunean, hain zuzen, Beizamako Udalaren plantila organikoa eta lanpostuen zerrenda argitaratu ziren.

Ikusirik, administrari laguntzaile eta eginkizun anitzeko langile lanpostuei dagokien hizkuntza eskakizunari buruz akatsak nabaritu direla.

Kontuan hartuz, besteen artean, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 97.2 artikulua eta apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 7. artikulua xedatutakoa, Udalbatzak, bertan daudenek aho batez harturiko erabakiarekin, ondokoa erabakitzen du:

Bakarra.- Akatsak zuzenketa egitea. Ondorioz, iragarkian ondokoa dioen lekuan:



BEIZAMAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Izena	Hornitzeko era	Taldea	Eskala	Azpieskala	Mota	Eskatutako Titulazioa	Hizkuntza Eskakizuna	Derrigorrez. Data	Ordainketa Maila	Lansaiola
Administrari laguntzailea	L-O	C	O	AL	-	4	3	-	12	% 100
Eginkizun anitzeko langilea	L-O	E	B	Z	-	4	2	-	7	% 50

Honakoa jarri beharko du:

Izena	Hornitzeko era	Taldea	Eskala	Azpieskala	Mota	Eskatutako Titulazioa	Hizkuntza Eskakizuna	Derrigorrez. Data	Ordainketa Maila	Lansaiola
Administrari laguntzailea	L-O	C	O	AL	-	4	3	2008/04/30	12	% 100
Eginkizun anitzeko langilea	L-O	E	B	Z	-	4, B1 gida baimena	1	2008/04/30	7	% 50

Gaiaren premiatasuna ikusirik, Udaltzarak bertan daudenek aho batez harturiko erabakiarekin, ondoko gaia bertan eztabaidatzea erabakitzen dute:

**ONARTZEA, BADAGOKIO, R-21 GUNEKO ARGINDAR POSTEAK
LURPERATZEKO PROPOSAMENA BERRESTEA**

Beizaman helbideratua dagoen Alejandro Monasterio Iruretagoienak, 34.093.547-A N.A. duenak, eskaera egin zion Udal honi. Bertan, R-21 gunean dagoen argindar posteak suposatzen duen arriskua kontuan izanik, berau kentzeko eskatzen zuten.

Eskaera aztertu ondoren, Udaltzarak, bertan daudenek aho batez harturiko erabakiarekin, ondokoa erabakitzen du:

Lehena.- Udal honek gai honi buruz aurretik hartutako erabakia berrestea eta R-21 guneko proiektuaren aldaketa egitea onartzea elektraingar postea lurperatzeko.

Bigarrena.- Udal honen baliabideak urriak diren arren, lurperatzea egiteko lurzoru publikoan egin beharreko lanak eginak daudenez, dagokion lurzoru pribatuko jabeekin kontaktuan jartzea egin beharreko lanak lehenbailehen baimendu ditzaten.

Hirugarrena.- Interesdunei jakinaraztea

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ipini daiteke Donostiako Administrazioarekiko auzietako epaitegietan.



BEIZAMAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Gaiaren premiatasuna ikusirik, Udalbatzak bertan daudenek aho batez harturiko erabakiarekin, ondoko gaia bertan eztabaidatzea erabakitzen dute:

**INDARREAN DAGOEN HILETA ZERBITZUEN TASA ARAUTZEN DUEN
ZERGA ORDENANTZA EGUNERATZEA**

Udal honek, 1997ko abenduaren 27an egindako osoko bilkuran onartu zuen hileta zerbitzuen tasa arautzen duen zerga ordenantzaren aldaketa egitea, ordutik prezio berbera mantendu delarik. Udalbatzak beharrezkoa ikusten du hileta zerbitzuen tasa arautzen duen zerga ordenantza eguneratzea eta pezetatik euroetara bihurtzea.

Aurrekoa ikusi ondoren, bertan daudenek aho batez harturiko erabakiarekin, Udalbatzak ondokoa erabakitzen du:

Lehen.- Tasari dagokion eranskinean, ondokoa jartzen duen tokian:

Hileta zerbitzuak.

- A) Nitxoen ehorzketa eta eskubide hau 12 urte bitartean bere onean eustea: 20.000 pta.
- B) Hezurak gordetzeko kutxa, betirako: 15.000 pta.
- C) Lurperatzea: 10.000 pta.

Ondokoa jartzea:

Hileta zerbitzuak.

- A) Nitxoen ehorzketa eta eskubide hau 12 urte bitartean bere onean eustea: 120,20. €
- B) Hezurak gordetzeko kutxa, betirako: 90,15. €
- C) Lurperatzea: 60,10. €

Erabaki hau izapidezko egintza soila besterik ez da eta beraren aurka ezin da inongo errekurtsorik jarri.

Aztartzeko beste gairik ez dagoenez, 20:15etan eman da amaitutzat bilera. Han esandako guztia aktan jaso eta idazkari nauzuen honek EGIAZTATZEN dut.